

Euskarazko lexiko espezializatuaren garapenaz eta harmonizazioaz

Igone Zabala Unzalu, Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila,
Ixa taldea, UPV/EHU

1. SARRERA¹

Hirurogeiko hamarkadan, orduan nagusi ziren hizkuntza-plangintzarako eredu jarraiki, beharrezkotzat hartu zen euskararako eredu estandarra sortzea, euskal hiztun kopurua handitzeko eta euskara ordura arte baztertuta egon zen erabilera-esparruetara zabaltzeko xedeari begira. Euskara estandarra kodifikatu behar zen baina, jakina, estandarra kodifikatzea ez da nahikoa hizkuntza gutxituen normalizaziorako. Kodifikatutako estandarra askotariko komunikazio-egoeretan erabili behar da, eta hizkuntza alor berrietan erabiltzeak nahitaez eskatzen du adierazpide eta lexiko berria garatzea, bai eta estilo berriak lantzea ere.

Euskara estandarra kodifikatzen hasi bezain laster hasi zen erabiltzen lehengo erabilera-alorretan eta erabilera-alor berrietan ere: literaturan, komunikabideetan, irakaskuntzan, administrazioan. Erabilera horiek guztiak euskara batuaren ortografia-eta gramatika-arau jaioberrien ezarpenerako saiakuntza-bankua izan ziren eta, gainera, lexiko eta estilo berriak garatzeko premia eragin zuten. Komunikazio espezializatuari eta, bereziki, zientzia eta teknologien alorrei dagokienez, 70eko hamarkadan zientzialari eta ingeniari talde txiki batzuen ekimena izan zen testu- eta terminologia-sorkuntza. Hasierako ekimen horiek euskarazko lexiko eta adierazpide espezializatuen garapenerako funtsezkoak izan ziren zenbait erakundetan kristaldu ziren 70eko hamarkadaren bukaeran: Elhuyar, UEU, UZEI. Euskara irakaskuntza maila guztietan eta administrazioan gero eta presentzia handiagoa hartzen ziholarik, 80ko hamarkadan zenbait urrats esangarri eman ziren instituzionalizazioari begira. Batetik, EIMA batzordea sortu zuen Eusko Jaurlaritzak lehen eta bigarren hezkuntzarako testuliburuaren sorrera sustatzeko eta horien kontrol linguistikoa egiteko eta, bestalde, UZEI Eusko Jaurlaritzaren babespeko erakunde bihurtu zen. Instituzionalizazioaren azken urratsak mende berriarekin etorri ziren. Hasteko, Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) Euskara Zerbitzua sortu zuen 2000 urtean,

1. Lan hau Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak (MINECO) finantzatutako PROSAMED (TIN2016-77820-C3-1-R) ikerketa-egitasmoaren barruan kokaturik dago.

unibertsitate-irakaskuntzarako eta zientziaren dibulgaziorako liburuen itzulpena sustatzeko eta material didaktikoen hizkuntza-kalitatea kontrolatzeko. Bigarrenik, UZEIk sortutako Euskalterm terminologia-datubasea terminologia-banku publiko bihurtu zen 2001 urtean. Azkenik, terminologiaren estandarizazioaren ardura duen Terminologia Batzordea sortu zuen Eusko Jaurlaritzak 2002 urtean.

Azpitarratu beharrekoa da lexiko estandarraren kodifikazioa gaur egun arte luzatu dela, eta, beraz, atzeratu egin dela euskararen lantze funtzionalarekiko². Izan ere, Hiztegi Batuaren kodifikazioa 90eko hamarkadan hasi, eta lehen argitalpena 2000 urtean egin zuen Euskaltzaindiak. Hasierako hiztegi arauemailea nagusiki hiztegi ortografikoa izan zen, sarrera batzuetan esanahiari eta erabilerari buruzko argibide batzuk ematen bazituen ere. Definizioan hiztegiaren lehen argitalpena 2012 urtera arte atzeratu da. Nolanahi ere, hiztegi ortografikoaren lehen erabakiak interpretatzen, ezartzen eta lantzen joan dira askotariko eragileak (idazleak, irakasleak, itzultzaileak, zientzialariak, zuzentzaileak...) bi hamarkada hauetan. Euskararen lantze funtzionalaren eta lexiko estandarraren kodifikazioaren arteko desfaseari ezin zaio ezikusia egin, hiztegi arauemailearen kodifikazioak behar duen metodologiari berari eragiten baitio azken hamarkadetan lexiko espezializatuak izan duen garapen eta lantze funtzional esangarriak. Euskaltzaindiaren hiztegiak ekarpen handia egin dezake lexikoaren aldakortasun asistematikoa antolatzeari begira, baina horretarako ezinbestekoa da irizpide funtzionalak baliatzea, bai arauak landu aurreko deskripzioan, eta bai hiztegiaren sarreraren eta azpisarreraren kodifikazioan ere (Elordui eta Zabala, 2009).

Bigarren atalean euskarak erabilera-alor espezializatueta izan duen garapenaz arituko gara. Hirugarren atalean euskarazko lexiko espezializatuaren normalizazioari begiratuko diogu XXI. mendean garatutako terminologiaren teoria berrien ikuspuntutik frogatutzat eman diren zenbait oinarriren argitan. Azkenik, laugarren atalean, lexiko espezializatuaren harmonizazioan Euskaltzaindiaren hiztegi arauemaileak egin dezakeen ekarpenaz arituko gara labur.

2. EUSKARAREN GARAPENA ERABILERA-ALOR ESPEZIALIZATUETAN

Arautzen hasi berria zen euskara batua, literaturarako eta kazetaritzarako ez ezik, gai tekniko-zientifikoetarako ere hasi zen erabiltzen 70eko hamarkadaren hasieratik (Etxebarria, 2002).

2. Haugen-ek (1983) nabarmentzen du berak deskribatutako hizkuntza-plangintzarako ereduaren lau urratsak (hautapena, kodifikazioa, ezarpena eta lantze funtzionala) ez direla nahitaez ondoz ondokoak, baizik eta aldiberekoak eta ziklikoak eta, izan ere, euskararen normalizazio-prozesuan hala gertatu da: euskara batuaren kodifikazioa, ezarpena eta lantze funtzionala gainezari egin dira. Estandarren kodifikazio-prozesuetan hiru atal bereizi zituen Haugen-ek (1966): grafizazioa, gramatikalizazioa eta lexikalizazioa.

Beraz, 70eko hamarkadaren lehen urteetan sortuta zeuden helburu modura prosa zientifikoa landu nahi zuten bi talde unibertsitario, Euskal Herriko bi herrialdeetan, eta hasieratik bertatik elkarren berri izanik, bai batak eta bai besteak elkarrekin koordinatu beharra sentitu zuten bi-biek, eta, gainera, laster izan zuten ekimen bateratua aurrera eramateko tresna egokia: 1973an abiatutako Udako Euskal Unibertsitatea, hain justu. Ene ustez, UEUren barneko mintegietan eginiko eztabaidak, proiektuen aurkezpenak, liburuak egiteko proposamenak eta bestelakoak funtsezkoak izan ziren gero etorriko ziren lanen oinarri modura, guztiz motibagarriak izateaz gain. Zeren mintegi haietan proiektu zabalago baten partaide sentitu baikin. Emaitzak hurrengo hamarkadetan etorri dira (Etxebarria, 2002: 70).

Mugimendu horri esker, urte gutxitan nabariki garatu ziren terminologia, fraseologia eta denetariko adierazpide tekniko-zientifikoak (Irazabalbeitia, 2002).

1980ko hamarkadaren hasierarako zientzia nagusien euskara-molde estandarra finkatuta zegoen: oinarrizko hiztegia, formulak irakurtzeko moldea edo konposatu kimikoak izendatzeko nomenklatura, adibidez. Beraz, euskararen normalizazio- eta estandarizazio-bidean zientziaren hizkera aitzindaria izan zen (Irazabalbeitia, 2002: 49).

Hastapen horietan batasun handia zegoen adierazpide espezializatuaren garapenean, diskurtso-komunitate txiki batek garatzen eta erabiltzen baitzituen baliabide horiek, baina denbora aurrera joan ahala, orokortzen joan zen euskararen erabilera esparru akademikoetan, lehen hezkuntzatik hasi eta unibertsitateko maila guztietaraino. Administrazioan eta komunikabideetan ere presentzia handia hartu zuen euskarak, eta enpresa pribatuen munduan erabilera oraindik ere askoz ere mugatuagoa bada ere, sustapen-politika aktiboak ari dira ezartzen. Euskara espezializazio-maila desberdinetako komunikazio-egoeretan erabiltzen duten adituak eta diskurtso-komunitate espezializatuak biderkatzen eta dibertsifikatzen joan dira. Bestalde, sarreran azaltzen genuen bezala, hizkuntza-baliabideen garapena, kodifikazioa eta kontrola instituzionalizatzen joan dira: EIMA, Terminologia batzordea, EHUren Euskara Zerbitzua.

Euskararen erabilerak esparru espezializatuetan egin dituen aurrerapen nabarmenak eta horiek ekarri duten hizkuntzaren garapena urrats garrantzitsutzat hartu behar ditugu, zalantzarik gabe, euskararen biziberritze- eta normalizazio-prozesuan. Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu bi kontzeptu desberdini erreferentzia egiteko erabiltzen dela normalizazio terminoa. Batzuetan, estandarizazio terminoaren sinonimo modura erabiltzen da, alegia, norma, estandar edo erreferentziazko forma bihurtzeko prozesuari erreferentzia egiteko. Beste batzuetan, aldiz, normal edo ohiko bihurtzeko prozesuari esaten zaio normalizazio. Ildo horretatik, terminologiaren normalizazioaz, eta oro har lexikoaren normalizazioaz ari garelarik, bi prozesu mota bereizi behar ditugu (Cabré, 2003): alde batetik, erakunde baten interbentzioa aldaki batzuk beste batzuen gainean lehenesteko eta, bestetik, aldaki jakin batzuen finkapena autorregulazioaren bitartez. Areago, lexikoaren autorregulazioaz ari delarik, bi prozesu mota bereizten ditu Cabré-k (2003): batetik, erabiltzaileek beraiek ados

jarriz kudeatutako normalizazioa eta, bestetik, erabilera eragindako normalizazioa, alegia, erabilera-maiztasunak eragindako aldakien erregulazioa.

Euskararen lexiko espezializatuaren garapenari dagokionez, indar horien garrantzia aldatuz joan da denbora aurrera joan ahala. Hastapenetan, adituak beraiek ados jarriz ezarri ziren oinarritzko terminologia eta adierazpideak, baina denbora eta normalizazio-prozesua aurrera joan ahala, interbentzio instituzionalak eta erabilera-maiztasunak eragindako erregulazioak hartu dute protagonismo handiagoa. Indar horiek guztiak hartu behar dira kontuan une honetan, lexiko espezializatuaren garapen eta normalizazioari lagunduko badiogu. Hala ere, gure iritziz, terminologiaren eta, oro har, lexikoaren normalizazioaren ardura duten erakundeak nagusiki hiztegi-sorkuntzara eta estandarizaziora bideratzen dituzte ahaleginak, eta arreta txikia eskaintzen diete adituek diskurtso espezializatueta egiten dituzten terminologiaren erabilerei eta horien atzean dauden motibazio semantiko-pragmatikoei. Interbentzio instituzionalek terminologiaren garapen eta autorregulazio naturala kontuan ez hartzeak arriskuan jar dezake euskararen normalizaziorako nahitaezkoa den lexikoaren garapen funtzionala (Zabala *et al.*, 2014). Estandarrek egonkor eta malguak izan behar dute aldi berean (Garvin 1973), eta bi ezaugarri horiek ezinbestekoak dira normalizazio-prozesuan dauden hizkuntzen garapenerako tresna izango badira. Egonkortasunaren eta malgutasunaren arteko oreka kodifikazioaren eta lantze funtzionalaren arteko tentsioaren emaitza da, kodifikazioaren xedea egonkortasuna baita eta, hizkuntzen lantze funtzionalak, aldiz, ezinbestekoa baititu malgutasuna eta aldaketa (Haugen, 1987: 276).

3. EUSKARAZKO LEXIKO ESPEZIALIZATUAREN NORMALIZAZIOA TERMINOLOGIAREN TEORIA BERRIEN ARGITAN

Euskara estandarraren hiztegiaren kodifikazioaren eta lexiko espezializatuaren garapen eta normalizazioaren bideek bat egin dute XXI. mendearen bidegurutzan eta, egun, beharrezkoa da gogoeta sakona egitea bi prozesu horiek elkarren oztopo bihurtuko ez badira. Gogoeta hori nahitaez kokatu behar da, gainera, mendearen atarian terminologiari buruzko teoriek izan duten eboluzioan. Izan ere, XX. mende ia osoan Eugen Wüster-ek (1898-1977) eta haren jarraitzaileek garatutako Terminologiaren Teoria Orokorren (TTO) jarraibideek gidatu dituzte terminologia-lanak eta -plangintzak. TTOk «hitzak» eta «terminoak» sistema semiotiko desberdinetako elementutzat hartzen ditu, eta haren interesa terminoetara mugatuta dagoelarik, alde batera uzten ditu maila sintaktiko eta diskurtsiboak. Terminologiarako hurbilketa berriek, aldiz, terminoak hizkuntza naturalen lexikoaren partetzat hartzen dituzte. Zehazkiago, Terminologiaren Teoria Komunikatiboaren (TTK) arabera (Cabré, 1999, 2001), hizkuntza bateko hiztegi-elementuak ez dira printzipioz ez hitz ez termino, eta erabiltzen diren komunikazio-egoeraren ezaugarrien arabera, balio espezializatu edo ez-espezializatu jakin batzuk aktibatzen dituzte. XX. mendean nagusi izan den ereduaren arabera, beraz, euskararen hiztegi orokor estandarraren

kodifikazioak ez lioke ezertan eragin behar terminologiaren garapen eta kodifikazioari. TTKren ikuspegitik, aldiz, hiztegi-elementuen balio espezializatuak eta ez-espezializatuak diskurtsoetan aktibatzen diren tasun semantikoen ondorio dira, eta hiztegi-sarreraren karakterizazioak balio horiek guztiak azaltzen dituen eredu polisemikoa behar du. Hiztegi-elementuen balio espezializatuak bi ezaugarri dituzte balio ez-espezializatuakiko: erreferentzia-zehaztasun handiagoa eta informazio semantikoaren inbrikazio handiagoa (Adelstein, 2007).

Talde moduko izen arinen terminologizazio-prozesuek hizkuntzen lexikoiaren antolakuntza polisemikoaren adibide ona ematen digute, *continuum* bat azaltzen baitute izen arinetatik (1) terminoetara doana (4), eta tartean erreferentzia-indarra (EI) handiagoko izen ez-espezializatuak (2) eta paraterminoak³ (3) dituen (Zabala, 2017).

(1) a. **Gizon talde bat** dago kalean. [izen arina]

b. \approx **Gizon batzuk** daude kalean.

(2) a. futbol-**talde** irabazlea [EI \uparrow izen ez-espezializatu]

b. \approx **talde** irabazlea

c. \neq futbol irabazlea

(3) Hidroxilo **taldea** oxigeno atomo batek eta hidrogeno atomo batek osatutako **talde** funtzionala da. [Paratermino *Kim.*]

(4) X-tik X-rako aplikazio bijektiboen multzoa **taldea** da konposizioarekiko.

[Termino *Mat.*]

Sarrera lexikoen balio ez-espezializatuak eta zenbait balio espezializatu hiztegi ez-espezializatuaren azpisarreretan islatzen dira, ohikoa bada ere balio espezializatu guztiak ez islatzea. Ikus, adibidez, Euskaltzaindiaren Hiztegian (2012) *talde* izenaren sarrerak zenbait balio ez-espezializatu ez ezik, Matematika alorreko balio espezializatu ere jasotzen duela. Hala ere, ez ditu jasotzen izen horrek Kimikan, Medikuntzan edo Gizarte Zientzietan aktibatzen dituen beste balio espezializatu batzuk. Hiztegi espezializatuak, aldiz, espezialitate-alor bati edo batzuei begira egiten direlarik, ez dituzte jasotzen balio ez-espezializatuak.

3. Paraterminoak elementu lexiko semantikoki asegabeak dira, beren erreferentzia osatzeko mugatzaile baten beharra dutenak. Hori dela-eta, ezin dira independenteki definitu espezialitate-alor jakin batean eta, izen edo adjektibo espezializatu batekin konbinaturik, termino monolexiko konplexuak edo termino sintagmatikoak ematen dituzte. Adibidez, *talde* izena paraterminotzat har dezakegu ondoko terminoetan: *enpresa-talde*, *arrisku-talde*, *talde etniko*, *funtzio-talde* edo *talde funtzional*, *hidroxilo talde*.

talde 1 iz. Mota bereko izaki bizidunen multzoa...

2 iz. Kirol eta joko batzuetan, kopuru jakin bateko jokalaria multzoa, beste multzo baten aurka jokatzen duena...

3 iz. Gauzen multzoa...

4 iz. *Mat.* Multzo mota, eragiketa elkarkor bat duena eta elementu neutro bakar bat eta elementu bakoitzarentzat elementu simetriko bat dauzkana.

talde abeldar *Mat.* Egitura aljebraiko mota, taldea dena eta trukakortasun printzipioa betetzen dena...

(*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2012)

XX. mendeko terminologia-plangintzan eragin handia izan duen TTOren beste oinarrietako bat da termino idealak monosemikoak direla espezialitate-alor jakin baten barruan. Oinarri horretatik abiatuta, terminoak sinkronikoki tratatzen dira, eboluzioa nahita kontrolatuz: planifikazioa, bateratzea eta estandarizazioa. Nolanahi ere, ikuspegi sozioterminologikotik⁴ egindako azterketek agerian utzi dute oinarri hori ez datorrela bat datu enpirikoekin. Izan ere, polisemia, sinonimia eta metafora-transferentzia ohiko fenomenoak dira terminologia ikuspegi soziodiskurtsibotik aztertzen denean (Gambier, 1991). Ebidentzia horietatik abiatuta, garrantzi handia hartu dute terminologia-aldakortasunari buruzko ikerketek. Ildo horretatik, Freixa-k (2003, 2006) terminologia-aldakortasunaren kausak aztertu ditu, eta ondorioztatu du terminologia-aldakortasunaren abiapuntuko eragileak direla hizkuntzaren erredundantzia, hizkuntza-zeinuaren arbitrariotasuna eta kausa kognitiboak. Kausa horietaz gain, lau motatako kasuak bereizten ditu ondo garatutako hizkuntzetan: dialektalak, funtzionalak, diskurtsiboak eta hizkuntza artekoak.

Normalizazio-bidean dauden hizkuntza gutxituek zenbait bereizgarri azaltzen dituzte ondo garatutako hizkuntzekiko, neurri handian txanpon beraren bi aldeak direnak: batetik, kausa soziolinguistikoei zor zaien aldakortasun asistematikoaren maila handiagoa erakusten dute eta, bestetik, aldakortasun funtzional eta diskurtsiboaren maila txikiagoa. Euskararen lexikoaren normalizazioan ardura duten erakundeek helburua ondo garatutako hizkuntzen egoerara hurbiltzen joatea bada, terminologia-aldakortasuna itsuki murriztu gabe, aldakortasun funtzional eta diskurtsiboa aberasten lagundu beharko lukete aldakortasun asistematikoaren harmonizazioaren bidez (Elordui eta Zabala, 2009). Beharrezkoa den harmonizazio horretan erantzukizun nagusia du Terminologia Batzordeak, baina baita hiztegi eta datubase terminologikoen egileek eta Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren Batzordeak ere. Terminologia Batzordeak terminologia akademikoaren gainean egiten duen normalizazio-lana UZEIk 80ko hamarkadan hasi zuen lanaren jarraipena

4. Gambier (1987: 320) izan zen lehendabiziko terminologotako bat aldarrikatzen terminoen zirkulazioa, adituen neonimoen aurreko erreakzioak eta terminologia ofizialaren aurreko erresistentziak ulertzeko, ezinbestekoa zela hurbilketa sozioterminologikoa.

da, neurri handian, baina eragin handia du lan horretan Euskaltzaindiaren hiztegi arauemailearen garapenak ere. Begi bistakoa da bi erakunde horien normalizazio-jardunek uztarturik joan behar dutela, baina betiere lexikoaren harmonizazioak ezinbestekoak dituen irizpide funtzionalak oinarri hartuta. Hiztegi-elementuen balio espezializatuek kontzeptu-zehaztasun handiagoari erantzuten diote eta era sistematikoagoan antolatuta daude espezialitate-alor jakin baten barruan. Gainera, kontzeptu espezializatuak poliedrikoak dira, eta poliedro horietako aurpegi desberdinak adierazten dituzte terminoek komunikazioaren helburuen arabera (Cabré, 2008). Zehaztasun eta sistematikotasun horiek eragina dute terminoen forman.

4. EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGI ARAUEMAILEA ETA LEXIKO ESPEZIALIZATUAREN HARMONIZAZIOA

Haugen-ek (1983) argitzen duen bezala, hiztegi estandarraren kodifikazioak hiztegi-elementuen ortografia finkatzea ez ezik, hizkuntzaren hitzei estiloak eta erabilera-esparruak egozte ere eskatzen du. Hirugarren atalean ikusi dugun bezala, erabilera-alor espezializatuak ere kontuan hartzekoak dira adiera-egozte horretan, eta Euskaltzaindiaren Hiztegiak lagundu dezake zenbait hiztegi-sarrerek erakusten duten aldakortasun asistematikoa harmonizatzen, euskara komunikazio espezializaturako tresna baliagarriago egiteari begira. Adibide bat baino ez dugu eskainiko, artikulua honen luzera-mugak direla-eta.

Euskara bezalako hizkuntza eranskarien ezaugarri bereizgarrietako bat da atzizki lexiko kopuru handiagoa izatea hizkuntza flexiboek baino. Ugaritasun hori nabaria da aditzetiko izenak sortzen dituzten atzizkien kasuan eta, bereizketa semantiko eta morfopragmatikoak garatzeko oso tresna baliagarriak badira ere (Zabala eta Elordu, 2010), aldakortasun asistematikoa ere eragiten dute hiztunen erabileretan. Adibide horietako bat da *hazi* aditzetik eratorritako *haziera*, *hazkunde* eta *hazkuntza* izenen kasua. Hiru izen horien arteko bereizketak balio funtzionala du Biozientzien esparruan, baina oso maiz era asistematikoan erabiltzen dira. 80ko hamarkadan *haziera* izena sartu zen UZEIren hiztegitan Biologiaren alorrean *crecimiento* terminoaren ordain modura: Zoologia hiztegian, *haziera-eraztun* eta, Botanika hiztegian, *muturreko haziera*. UZEIren Medikuntza hiztegiaren 1. liburukian (Liseriketa) ere *haziera* ageri da, baina hurrengo liburukietan *hazkunde* ordaina ageri da *crecimiento* erdal terminorako. Euskaltermen egun Zoologiako sarrerak bere horretan segitzen du (*haziera-eraztun*), Botanikan bi sinonimo ageri dira (*muturreko haziera*; *muturreko hazkunde*) eta, Medikuntzako sarrera guztietan, *hazkunde* ageri da (*aurikularen hazkunde*, *umetoki barneko hazkunde atzeratu*, *hazkunde-kurba*).

Hazkunde hiztegi-elementuak erabilera nabaria du baita Gizarte Zientzietan ere: *ekonomiaren hazkunde*, *biztanleriaren hazkunde*. Antzeko kontzeptuak aurkitzen ditugu baita Biozientzietan ere, adibidez, hainbat indibiduo osaturiko

populazioaren edo koloniaren *hazkundeaz* ari garenean. Zehazkiago, Biozientzietan bi kontzeptu bereiz ditzakegu: ‘indibiduo bat tamainaz handitzea’ edo ‘indibiduoak ugaritzea’. Ingelesezt, *growth* termino polisemikoa erabiltzen da bi kontzeptu horietarako, baina espainolez, *crecimiento* eta *proliferación* erabiltzen dira maiz, bi kontzeptuak bereizteko. Euskaltermen *proliferación* izenaren ordain modura *proliferazio* baino ez da ageri. Baina euskaraz ere, baditugu baliabide lexikoak bi kontzeptuak (*crecimiento* eta *proliferación*) bereizteko: *zelularen haziera* ‘zelularen zitoplasmaren eta organuluaren bolumena handitzea’ vs *zelula-hazkunde* ‘zelulak ugaritzea’. Gainera, kontzeptuak poliedrikoak direnez, zenbaitetan ikuspegi batetik baino gehiagotatik begira diezaiekegu. Adibidez, tumore bat handiago egiten denean, ikuspegi makroskopikotik tumorearen tamainari erreparatu, eta *tumorearen haziera* terminoa erabil genezake, baina *haziera* horren azpian dagoen minbizidun zelulen ugaritzeari erreparatu nahi badiogu, *tumorearen hazkunde* terminoa erabil genezake. Hortaz, *haziera* eta *hazkunde* izenen arteko ñabardura semantikoak Biozientzietako adituen komunitate diskurtsiboek partekatuko balituzte behintzat, zehaztasun handiagoz komunikatzeko tresna egokiak lirateke.

Hala ere, ikasle-irakasleek maiz, *haziera* eta *hazkunde* alde batera utzita, *hazkuntza* izena baino ez dute erabiltzen. Erabilera hori ez dator bat Euskaltzaindiaren Hiztegiak izen horretarako proposatzen duen erabilerarekin, *cultivo* terminoaren ordain modura ulertu beharko litzatekeena. Euskaltermen Arrantza, Nekazaritza eta Abeltzaintza alorretan *hazkuntza* terminoa ageri bada ere, Biologia alorrean *kultibo* baino ez da ageri. Hala ere, ikasle-irakasleen erabileran *hazkuntza* ere ageri da *kultibo* terminoaren sinonimo modura (*mikroorganismoen hazkuntza* / *mikroorganismoen kultibo*; *zelula-hazkuntza* / *zelula-kultibo*).

Hizpide ditugun hiru hiztegi-elementuen kontzeptu-ñabardurak Euskaltermen txertatzea lagungarria litzateke horien erabilerak harmonizatzeko, eta komunikazio espezializatua zehatzago eta eraginkorrago egiten laguntzeko.

Euskaltzaindiaren hiztegian *hazkunde* sarreraren definizio modura ageri da ‘handiago egitea’, baina ageri diren adibideak (*hiriaren hazkundera*, *biztanleriaren hazkundera*) ondo uztartzen dira Biziaren Zientzietan proposatu dugun adierarekin. *Haziera* sarreran, aldiz, ez da ageri ‘handiago egitea’ adiera, eta izen hori *hazkuntza* izenaren sinonimo partzial modura ematen da, bereziki umei buruz ari garenean (*haziera txarreko gazteak*). Azkenik, *hazkuntza* sarreran ‘umeak haztea’ eta ‘abereak haztea’ adierak bereizten ditu Euskaltzaindiaren Hiztegiak. Gure iritziz, Euskaltzaindiaren Hiztegiak lagun lezake hiru izen horien erabilera espezializatuak harmonizatzen, *Bio.* espezialitate-marka eramango luketen zenbait azpisarrera gaineratuko balira:

hazkuntza: iz. *Bio.* kultibo. *Zelula-hazkuntza.*

haziera: iz. *Bio.* Indibiduo bat tamainaz handitzea. *Zelularen haziera. Landarearen haziera.*

hazkunde: iz. *Bio.* proliferazio. *Zelula-hazkundera. Koloniaren hazkundera. Tumorearen hazkundera.*

5. ONDORIOAK

XXI. mendean nagusitu diren terminologiaren teorien arabera, edozein hizkuntzaren hiztegi-elementuak, berez, ez dira «hitz» edo «termino»: hiztegi-elementuen balio espezializatuak eta ez-espezializatuak diskurtsoetan aktibatzen diren tasun semantikoaren ondorio dira. Hortaz, hizkuntzaren lexikoiaren sarreraren karakterizazioak balio horiek guztiak azaltzen dituen eredu polisemikoa behar du izan. Ideia hori bat dator lexikografia orokorraren metodologiarekin. Izan ere, hiztegi orokorretan ohikoa da, hiztegi-sarreraren adiera orokorrez gain, zenbait adiera espezializatu ere islatzea. Lan honetan adibide batekin saiatu gara agerian uzten Euskaltzaindiaren Hiztegiak lagundu dezakeela zenbait hiztegi-sarrerak erakusten duten aldakortasun asistematikoa harmonizatzen, euskara komunikazio espezializaturako tresna baliagarriago egiteari begira. Horretarako, baina, ezinbestekoa da irizpide funtzionalak baliatzea, bai arauak landu aurreko deskripzioan, eta bai hiztegiaren sarreraren eta azpisarreraren kodifikazioan ere.

BIBLIOGRAFIA

- Adelstein, Andreina (2007): *Unidad léxica y significado especializado: modelo de representación a partir del nombre relacional* madre, doktoretza-tesia, Pompeu Fabra Unibertsitatea, Bartzelona.
- Cabré, Maria Teresa (1999): *La terminología. Representación y comunicación*, IULA, Pompeu Fabra Unibertsitatea, Bartzelona.
- , (2001): «Sumario de principios que configuran la nueva propuesta teórica», in Maria Teresa Cabré eta Judit Feliu (ed.), *La terminología científico-técnica*, IULA, Pompeu Fabra Unibertsitatea, Bartzelona, 17-26.
- , (2003): «Terminología y normalización lingüística», in Xabier Alberdi, Iñaki Ugarteburu eta Pello Salaburu (ed.), *Especialitate hizkerak eta terminologia jardunaldiak*, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 11-25.
- , (2008): «El principio de la poliedricidad: la articulación de lo discursivo, lo cognitivo y lo lingüístico en terminología (I)», *Ibérica*, **16**, 9-36.
- Elordui, Agurtzane eta Igone Zabala (2009): «Euskara batuaren garapen lexiko-diskurtsiboa: batasunetik aniztasun funtzionalerantz», *ASJU*, **XLIII**, 231-246.

- Etxebarria, Jose Ramón (2002): «Euskal prosa zientifikoaren historiaren inguruan», *Hegats literatur aldizkaria*, Euskal Idazleen Elkarte, 63-94.
- Freixa, Judit (2003): *La variación terminológica: Anàlisi de la variació denominativa en textos de diferent grau d'especialització de l'àrea de medi ambient*, doktoretza-tesia, Pompeu Fabra Unibertsitatea, Bartzelona.
- Freixa, Judit (2006): «Causes of denominative variation in terminology», *Terminology*, **12**(1), 51-77.
- Gambier, Yves (1987): «Problèmes terminologiques des pluies acides: pour une socio-terminologie», *Meta*, **32**(3), 314-320.
- , (1991): «Présupposés de la terminologie: vers une remise en cause», *Cahiers de Linguistique Sociale*, **18**, 31-58.
- Garvin, Paul (1973): «Some comments on language planning», in J. Rubin eta R. Shuy (ed.), *Language Planning: Current Issues and Research*, Georgetown University Press, Washington DC, 24-73.
- Haugen, Einar (1966): *Language conflict and language planning; the case of modern Norwegian*, Harvard University Press, Cambridge.
- , (1983): «The Implementation of Corpus Planning: Theory and Practice», in Juan Cobarrubias eta Joshua A. Fishman (ed.), *Progress in Language Planning. International Perspectives*, Mouton Publishers, Berlin, New York, Amsterdam, 269-289.
- Irazabalbeitia, Iñaki (2002): «Zientzia Komunikazioa Euskal Herrian: hurbilketa modukoa», *Hegats literatur aldizkaria*, Euskal Idazleen Elkarte, 47-62.
- Zabala, Igone eta Elordui, Agurtzane (2010): «Nominalizazioa estrategia diskurtsibogisa: corpus akademikoaren azterketaren beharra», in Xabier Alberdi eta Pello Salaburu (ed.), *Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak. Euskararen garapena esparru akademikoetan*, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 243-260.
- Zabala, Igone; San Martín, Itziar eta Lersundi, Mikel (2014): «Linguistic and sociolinguistic factors that influence the detection, implantation and circulation of natural terminology in academic uses of Basque», in Pascaline Dury, Jose Carlos de Hoyos, Julie Makri-Morel, François Maniez, Vincent Renner eta Maria Belén Villar Díaz (ed.), *La néologie en langue de spécialité. Neology in specialized languages. La neología en lengua de especialidad*, Publications du CRTT, Lyon, 141-164.
- Zabala, Igone (2017): «Light Nouns and Term Creation in Basque», *Terminàlia*, **15**, 27-37.